


Euskal AEko eraikuntzako kostuak %0,1 igo ziren 2012ko abuztuan aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2012ko abuztua, 2011koarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %0,7 gehitu dira

2012ko abuztuan, Euskal AEko Eraikuntza Kostuen Indizea %0,1 igo zen, aurreko hilaren aldean, eta urte arteko tasa %0,7 igo zen, EUSTATen datuen arabera.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2012



(*) Gehikuntza abuztuko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2012ko abuztuan lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (% 0,0), baina lehengaien kostuek % 0,1eko igoera izan dute.

Abuztuan Etxegintza eta Obra Zibila azpisektoreek bilakaera ezberdinak izan dituzte lehengaien kostuari dagokionez. Etxegintzan %0,2ko jaitsiera aurreko hilaren aldean, eta Obra Zibilarenean %1,2ko igoera. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran badira zenbait ezberdintasun: Etxegintzako lehengaien kostuak %0,2 igo ziren; Obra zibilekoak %2,4.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan dituztenen artean, Petrolio-fintzea (%15,8), Energia elektrikoa eta gasa (%7,0) eta makineria (%4,8) nabarmentzen dira. Berriz, urteko prezioetan (2012ko abuztua 2011koaren aldean) jaitsierak edo igoera txikiagoak izan dituzte ondoko sektoreetako lehengaiak: Metalurgia (%-4,8), Erauzketa industriak (%-0,8) eta Mineral ez-metalezkoen beste produktuen fabrikazioa (%-0,6).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2012KO ABUZTUA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hila- ren aldean	Aurreko urteko hil- beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	120,7	0,1	0,7	0,1
ERAIKINAK	119,3	-0,1	0,4	-0,2
OBRA ZIBILA	125,8	0,9	2,0	1,1
LEHENGAIEN KOSTUA	119,8	0,1	0,7	-0,1
ERAIKINAK	118,1	-0,2	0,2	-0,5
OBRA ZIBILA	126,5	1,2	2,4	1,2
LAN-ESKUAREN KOSTUA	124,1	0,0	1,0	1,0

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiagorako:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.